


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO ABENDUA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,1 behera egin zuten, 2004ko abenduan

Eraikuntzaren kostuak % 7,1 handitu dira 2004an.

2004ko abenduan, % 0,1 beheratu zen Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea, aurreko hilaren aldean, eta, horrenbestez, hil horretako urte arteko tasa % 7,1ekoa da, Eustatek eskainitako datuen arabera. Hortaz, 2004. urte osoko tasa % 7,1 goratu da, 2003ko abenduarekin alderatuta.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2004ko abendua, 2003ko abenduarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua % 3,8 handitu da; lehengaien kostuak, berriz, % 8,7 hazi dira.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetan bilakaera apur bat ezberdina izan da lehengaien kostuetan, *eraikuntzan* % 0,1 jaitsi baitira aurreko hilaren aldean, eta *obra zibilean*, % 0,4 beheratu, aurreko hilaren aldean. Azpisektore bi horien urte arteko bilakaerari begiratzuz gero, ikusiko dugu ez dutela hor ere bide berdina egin: *eraikuntzako* lehengaien kostuak % 8,9 hazi dira, eta *obra zibilekoen* kostuak, aldiz, % 7,8.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2004. urte osoan, aurreko abenduarekin alderatuta, hauek izan dira inflazio-tasarik handienekoak: *Metalezko hodiak* (% 42,6),

burdina eta altzairua (% 37,1), *asfaltozko produktuak* (% 29,6) eta *petroliotik eratorriak* (% 13,0). Aitzitik, murrizketak izan dituzte urte arteko prezioetan (2004ko azarokoak, 2003ko azarokoekin alderatuta) lehengai hauek: *beira* (% -2,9), *energia elektrikoa* (% -1,5), *aparatu eta material elektrikoak* (% -0,3) eta *zura eta kortxoa* (% -0,2) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO ABENDUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	115,2	-0,1	7,1	7,1	
ERAIKINAK	115,2	-0,1	7,3	7,3	
OBRA ZIBILA	115,2	-0,3	6,3	6,3	
LEHENGAIEN KOSTUA	112,9	-0,2	8,7	8,7	
ERAIKINAK	113,0	-0,1	8,9	8,9	
OBRA ZIBILA	112,3	-0,4	7,8	7,8	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 506. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp